

Baztan ikergai duten ikasketa akaberako proiektu edo lanak egiteko 2025 urteko dirulaguntzaren oinarriak

Lehendabizikoa. Dirulaguntzaren xedea

Baztan ikergai duten gradu amaierako lanak (GAL) edo master amaierako lanak (MAL) egiteko diru-laguntza ematea proposatu du Baztango Udalak.

Bigarrenena. – Zenbatekoa

Deialdi honetarako 2.500 euro esleituko zaizkio, gehienez ere, Udalaren 2025 urteko aurrekontuko “1-3269-48000.02 DIRU-LAG. BAZTAN IKASKETA AMAIERA LANAK” kontusailaren kargura esleitu ere. Diru laguntza partida bukatzen bada ez dira proiektu gehiago diruz lagunduko. Horretarako, balorazio batzordeak aurkeztutako proiektuen artean puntuazio gehien jaso duten 5 proiektuei diruz laguntzeko proposatuko du.

Hautatutako proiektu edo lan bakoitzari dagokion diru-laguntza 500 eurokoa izanen da.

Hirugarrena. – Eskatzaileen baldintzak:

- Baztango udalerrian errolda izatea edota ikasketak egiteagatik beste udalerrri batean erroldatuta egotea, betiere aurreko erroldatzea Baztanen izan bada.
- 2023/2024 ikasturtean GAL edo MAL egin izan edota 2024/2025 ikasturtean matrikulatuta egotea azken ikasturte gisa.
- Baztango udalarekin zorrik ez izatea.

Laugarrena. – Argitalpena

Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Baztango Udalaren webgunean, udaletxeko iragarki-oholean eta eskualdeko komunikabideetan iragarriko da.

Bosgarrena. – Aurkezteko epea eta lekua

Aitzineko ataletan heldu diren baldintzak betetzen dituzten eta beren burua deialdira aurkeztu nahi duten ikasleek, I. Eranskinean heldu den bezala, eskaria egin beharko dute hilabeteko epean deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina Baztango udaleko erregistroan.

Sexta. – Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

1. Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte ikasleek:

1.a. 2023/2024 ikasturtean GAL edo MALa aurkeztu duten pertsonen kasuan, **proiektuaren edo lanaren laburpen bat**. Gehienez ere 4 orri izango dira, alde batean idatzita, eta 1,5 lerroarte eta Times New Roman 12 tipografia izango dituzte. Bertan, honako hauek zehaztu behar dira:

- o hautagaiak bere gradu edo master amaierako lanaren gaia eta justifikazioa azaldu behar du,

- o lana egiteko prozesua, eta
- o lanaren ondorioak.

Laburpenarekin batera, GAL edo MALa gainditu dela egiaztatzen duen ziurtagiri edo dokumentu bat aurkeztu beharko da, bai eta lortutako kalifikazioa ere.

1.b. 2024/2025 ikasturtean GAL edo MAL aurkeztu behar duten pertsonen proiektuaren edo lanaren laburpen bat aurkeztu beharko dute. Laburpen hori gehienez ere 4 orrialdekoa izango da, alde batera idatzita, eta 1,5 lerroarte eta Times New Roman 12 tipografia izango ditu. Atal hauek izango ditu:

- o Aztergai den gaiaren aurrekariak edo testuingurua eta lurraldearekin dagoen harremana.
- o Helburuak
- o Metodologia
- o Iturriak eta oinarrizko bibliografia.

2. **NANaren fotokopia.**

3. **Errolda-ziurtagiria edo erantzukizunpeko adierazpena**, egiten ari den ikasketengatik aldi baterako Baztandik kanpo erroldatuta dagoela adierazten duena.

4. Laguntza zein **banku-kontutan** jaso nahi duen eta hori eskatzailearen izenenean dagoela ziurtatzen den banku-etxearen agiria.

Aipatu agiri horiek jatorrizkoak izan behar dute, edo bestela, kopia konpultsatuak.

Aurkezturiko dokumentazioa osaturik ez badago, interesdunari dagokion dokumentazio osagarria hamar eguneko epean aurkeztea galdeginen zaio.

Zazpigarrena. Balorazio, kudeaketa eta ebazpen organoak

Aurkeztutako memoriak eta proposamenak helburu horrekin osaturiko batzordeak baloratuko du. Bertan Elizondoko lanbide eskolako zuzendaria, Lekarozko institutuko zuzendaria, Cederna Garalurreko teknikaria, Baztango alkatea eta udal idazkaria egonen dira. Batzordeak arloko adituekin kontsultak egiten ahalko ditu.

Ebaluazio batzordea izanen da bekaren inguruko prozedura bideratuko duen organoa, eta proposamena eginen dio Tokiko Gobernu Batzordeari, ebazteko eskumena duen organoa.

Nolanahi ere, beka eman gabe utz daiteke, epaimahaiaren iritziz aurkeztutako proiektuetatik bakar batek ere ez badu gutxieneko kalitaterik erdietsi.

Zortzigarrena. – Balorazio-irizpideak

Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emango dira, objektibotasun, gardentasun, berdintasun, diskriminaziorik eza eta publizitate printzipioen arabera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean deialdi publikoa egin ondoren.

Ebaluazio-batzordeak 10 puntu emango dizkie, gehienez, aurkeztutako proposamenei, irizpide hauen arabera:

- a) Gaiaren gizarte-interesa eta Baztango erronkak lantzeko eta/edo planteatutako arazoak konpontzeko gaitasuna, gehienez 5 puntu.
Bereziki baloratuko dira landa-garapenari lagunduko dioten proposamenak, trantsizio ekosozialeko helburuekin bat egiten dutenak; Baztango Berdintasun Planaren ildotik emakumeen ahalduntzea bultzatzen duten lanak; lurraldearen errealitate soziolinguistikoa aintzat hartzen duten lanak; pentsamendu kritikoa sustatzen dutenak edo planteatutako arazoei irtenbideak bilatzen dizkieten lanak.
- b) Proposamenak berriak izatea edota haien berrikuntza maila: 2 puntu, gehienez
- c) Edukien egituraketa eta koherentzia, 2 puntu gehienez.
- d) Aurkeztutako proposamenaren kalitatea eta argitasuna, gehienez puntu 1.

Bederatzigarrena. – Proiektua edo lana aurkeztea

Bekaren onuradunek Baztango Udaleko erregistroan aurkeztu beharko dute egindako proiektua edo lana, tutorearen oniritziarekin, 2025eko azaroaren 30a baino lehen. Epea amaitu ondoren ez da lanik onartuko.

Lana Nafarroako Foru Komunitateko edozein hizkuntza ofizialetan egin daiteke.

Hamargarrena. Esleipenaren baliogabetzea, baldintzak ez betetzeagatik.

Esleipendunak ez baditu errespetatzen oinarri hauetan ezarritako epeak, ez lana aurkezteko epeak, ez eta epaimahaiari lana zertan den jakinarazteko epeak ere, edo eskatutako dokumentazioa aurkezten ez badu, edo lanak ez baditu bete proiektuaren ezarritako ezaugarriak, edo emaitza proposatutako lana baina askoz kalitate txikiagoa badu, ebaluazio-batzordeak esleitutako laguntza baliogabetzeko eskatu ahal izango dio udal-organo eskudunari; kasu horretan, esleipendunak ez du jasoko hasieran emandako laguntza.

Hamaikagarrena.- Dirulaguntza ordaintzea

Proiektua edo lana entregatu ondoren eta ebaluazio-batzordeak balorazio positiboa egin ondoren ordainduko da dirulaguntza.

Hamabigarrena. Lanaren argitalpena.

Lana argitaratzen bada udalari ale bat dohainik eman beharko zaio.

Hamahirugarrena. –Arau-hausteak eta zehapenak

Parte-hartzaileek deialdiaren oinarrietako baldintzak onartuko dituzte, eta arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

Hamalagarrena. –Datuen babesa

Eskatzaileen datuak Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

Hamabortzagerran. –Aplikatuko den araudia

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Toki-Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Foru Legea, azaroaren 17koa, aplikatuko dira.

Hamaseigarrena. Ebazpena eta helegiteak.

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko. Emanen diren administrazio-ebazpenen aurka ondoko errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da, aukeran:

_Berraztertzeiko errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.

_Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.

_Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

I ERANSKINA. 2023/2024 ikasturtean GAL edo MAL egin duten pertsonak parte hartzeko eskaera

Jaun/andrea:

NAN:

Telefona:

Helbidea:

Baztan ikergai duten ikasketa-amaierako proiektuak edo lanak garatzeko Baztango Udalak egindako dirulaguntzen deialdira aurkezten naiz eta, horretarako, deialdiaren oinarrietan eskatzen den dokumentazioa aurkezten dut.

Baztanen, 2025eko aren a

Eskatzailearen sinadura:

Aurkeztutako agiriak:

- Lanaren edo proiektuaren laburpena, III. Eranskinean emandako ereduaren arabera.
- Lana edo proiektua gaingitu izanaren ziurtagiria edo agiria, lortutako kalifikazioa jasotzen duena.
- Erroldatze-ziurtagiria edo erantzukizunpeko adierazpena, seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.
- Laguntza ekonomikoa jaso nahi duen bankuko kontuaren ziurtagiria, bankuak egina.

II. ERANSKINA. 2024/2025 ikasturtean GAL edo MAL aurkeztu behan duten pertsonek parte hartzeko eskaera

Jauna/andrea:

NAN:

Telefona:

Helbidea:

Baztan ikergai duten ikasketa-amaierako proiektuak edo lanak garatzeko Baztango Udalak egindako dirulaguntzen deialdira aurkezten naiz eta, horretarako, deialdiaren oinarrietan eskatzen den dokumentazioa aurkezten dut.

Baztanen, 2025eko aren a

Eskatzailearen sinadura:

Aurkeztutako agiriak:

- Lanaren edo proiektuaren laburpena, IV. Eranskinean emandako ereduaren arabera.
- Erroldatze-ziurtagiria edo erantzukizunpeko adierazpena, seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.
- Laguntza ekonomikoa jaso nahi duen bankuko kontuaren ziurtagiria, bankuak egina.

III. ERANSKINA
2023/2024 ikasturtean aurkeztutako GAL edo MAL

DATU PERTSONALAK

Izen abizenak	NAN	Sexua
Helbidea	Herria	
Telefonoa	E-maila	

DATU AKADEMIKOAK

Ikastegia edo fakultatea	Unibertsitatea
Titulazioa	
Tutorearen izen abizenak	Tutorearen e-maila

GAL edo MAL izenburua

GALaren edo MALaren laburpena (gehienez ere 4 orri izango dira, alde batean idatzita, eta 1,5 lerroarte eta Times New Roman 12 tipografia izango dituzte)

(Edukia: ikusi seigarren oinarria 1.a.)

IV. ERANSKINA
2024/2025 ikasturtean aurkeztutako GAL edo MAL

DATU PERTSONALAK

Izen abizenak	NAN	Sexua
Helbidea	Herria	
Telefonoa	E-maila	

DATU AKADEMIKOAK

Ikastegia edo fakultatea	Unibertsitatea
Titulazioa	
Tutorearen izen abizenak	Tutorearen e-maila

GAL edo MAL izenburua

GBLaren edo MBLaren laburpena (gehienez ere 4 orri izango dira, alde batean idatzita, eta 1,5 lerroarte eta Times New Roman 12 tipografia izango dituzte)

(Edukia: ikusi seigarren oinarria 1.b.)